



EAEko 2007-2013rako EGEF Programa Eragilearen komunikazio-plana sendotzeko argazki lehiaketaren oinarriak.



ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta dauden pertsonak aurkeztu ahal izango dira, 14 eta 25 urte bitartean badituzte, biak barne (1987ko urtarrilaren 1etik 1998ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoak).
2. Argazkien gaiak Europar Batasunak Euskadin dituen balio positiboak azalduko ditu, besteak beste eta, beraz, ez modu eskusiboan, Europako Funtsek EA Eren garapenerako emandako laguntzekin zerikusia dutenak. Era berean, lanen alderdi artistiko eta kontzeptualak ere balioztatuko dira.
3. Partaide bakoitzak 10 argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez.
4. Ez da onartuko egileak egindakoa ez den edo egilearen jabetzakoa ez den argazkirik.
5. Argazkiak formatu digitalean egongo dira.
6. Argazkiak kamera digitalarekin egindakoak izango dira, eta betekizun hauek bete beharko dituzte:
 - Argazkiak JPG artxiboak izango dira.
 - Artxiboak 5 Megabyte (Mb) izango ditu gehienez.
7. Deialdi honetan adierazitako betekizunak betetzen ez dituzten partaideak automatikoki kanporatuko dira lehiaketatik.
8. Lehiaketan parte hartzeko Facebook-eko “www.facebook.com/feder.ejgv” helbidean sartu beharko da, eta parte hartzeko formularioa bete. Bertan erantsi ahal izango dira argazkiak. Partaideek datu hauen berri eman beharko dute:
 - Partaidearen izen-abizenak.
 - Adina.
 - Helbide elektronikoa.
 - Telefono-zenbakia.



9. 2012ko martxoaren 26tik apirilaren 30era (00:00) bitartean jasotako argazkiak onartuko dira.
10. Gustu txarreko argazkiak edo irudiko protagonistentzat iraingarriak izan daitezkeen argazkiak baztertu egingo dira.
11. . Irudiak lehiaketaren kanal sozialetan ikusi ahal izango dira, eta bisitariek askatasun osoz balioztatu ahal izango dituzte.
12. . Partaideak onartu egiten du bere argazkia lehiaketaren kanal sozialetan ikusi ahal izango dela (Facebook eta Flickr).
13. Jasotako argazkietatik hiru hautatuko dira, eta saria emango zaie.
 - Argazki onenari 1. saria, epaimahaiak emanda: Bruselarako bidaia 2 lagunentzat: hegazkin-txartela eta gau bat hotelean (ohea eta gosaria). Irabazlea adingabea izanez gero, heldu batekin joan beharko du.
 - Argazki onenari 2. saria: Smartphone Iphone bat.
 - Argazki onenari 3. saria, herritarrek emanda: Facebook-en boto gehien izan duen argazkia. 2012ko Bilbao BBK Live-erako 2 txartel.
14. . Saritutako argazkiak Eusko Jaurlaritzaren jabetzako artxibora sartuko dira.
15. Lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak Facebook eta Flickr-en ipiniko dira erakusgai. 10 argazki finalistak formatu fisikoan ipiniko dira erakusketa-areto batean sariak emateko ekitaldian, eta gehienez 30 eguneko epean.
16. Partaideak Eusko Jaurlaritzaren aurrean aitortu eta bermatu egiten du bera dela lehiaketara aurkeztu duen argazkiaren egile-eskubide guztien titular bakarra, eta erantzule bakarra izango dela aurkeztutako lanetan hirugarrenen eskubideak badaude edo hirugarrenen batek irudi-eskubideen ondoriozko erreklamaziorik ipintzen badu.
17. Hiru kidek osatuko dute epaimahaia:

Europako Batzordearen ordezkari bat:

Europako Batzordeko Eskualde Politikarako Zuzendaritza Nagusiko
(Regio ZN) Espainiaren Unitateko arduraduna.



Eusko Jaurlaritzaren bi ordezkari:

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako arduraduna (bitarteko erakundea EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin batera finantzatutako EAeko 2007-2013rako EGEF Programa Eragilearen kudeaketan).
 - Eusko Jaurlaritzako Komunikazio Teknologia Berrien Arloko arduraduna.
18. Lehiaketaren Facebook-eko orrian boto gehien eskuratu duten 10 argazkietatik 2 hautatu beharko ditu Epaimahaiak, lehiaketa honen oinarrietako 2. klausulan ezarritakoa bete beharko dutela.
 19. Pertsona batek ezin izango du sari bat baino gehiago eskuratu. Pertsona baten argazki bat baino gehiago saritu bada, sarietako bat bakarrik jaso ahal izango du, Lehiaketaren oinarrietako 13. klausulan ezarritakoaren arabera emanda.
 20. Saritutako pertsonak oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, saritutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da Lehiaketaren Facebook-eko orrian. Era berean, saritutako pertsonen zuzenean jakinaraziko zaie zein sari eskuratu duten.
 21. Saritutakoek 2 eguneko epean adierazi beharko dute, idatziz, eskuratutako saria onartzen dutela, eta orduan jakinaraziko zaie saria eskuratzeko jarraitu beharreko prozedura. Aipatutako epea igaro eta partaideak ez badu idatziz adierazi saria onartzen duela, uko egiten diola ondorioztatuko da, eta ez da bestelako ordainik egongo.
 22. Saria jasotzeari uko eginez gero, arrazoa edozein dela ere, saridunak ez du bestelako ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Uko eginez gero, puntuen hurrenkeran hurrengo dagoen argazkiari emango zaio saria.
 23. Eusko Jaurlaritzak saria ematean, saridunak beren-beregi adierazi beharko du ados dagoela bere izen eta irudi pertsonalak sustapenaren emaitzaren publizitatea egiteko erabiltzearekin, eta erabileraren horrek ez diola inolako ordainketa- edo irabazi-eskubiderik emango.
 24. Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek eta epaimahaiaren erabaki apelaezina onartu egingo direla.
 25. Informazio bezala adierazi nahi da lehiaketa honek ez duela inolako babes, abal, administrazio edo loturarik Facebook-ekin.